



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/07/20

Bizkaiko Batzar Nagusiek arau aldaketak onartu ditue lurraldeko tributu sistemako bost zergatan

Bizkaiko Batzar Nagusiek euren etapa demokratikoan garagarrilean egiten daben lehenengo ohiko osoko bilkurea egin dabe. Hori udako hilebete honetan Batzarretako saioak egiteko aukerea emoten dauen araudi barria aplikau dalako izan da posible. Landutako zortzi gaien artean azpimarragarria da Bizkaiko tributu sistemako bost zergaren hainbat alderdi aldatzeko Foru Aldundiak ekarri dauen Foru Araua onartu dala: PFEZ, Soziedadeen gaineko Zergea, Ekonomi Jardueren gaineko Zergea, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentauen gaineko Zergea, eta Uri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergea. Osokoak ez ditu 14 zuzenketa-eske onartu (EH Bilduren 6 eta Podemos Bizkaiaren 8).

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak adierazo dauenez, barrikuntza “nagusi” gehienak PFEZren gainekoak dira. Familiei zuzendutako prestazinoetan salbuetsita geratzen dira Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Baterakoan minbizia edo beste gaixotasun larri bat daben adinbakoen zainketeagaz lotutakoak. Gainera, salbuespeneko balizko barri bi sartzten dira araupetutako ikasketak egiteko eta ikerketa lanetarako bankutako fundazinoek emondako bekatarako. Gai horrek Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeen kontrako eretxia jaso dau. Talde horreek ez dira ados egon beka “pribadu” horreek beka publikoen tratamendu berbera izateagaz.

EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoaren aldeko botoagaz onetsi dan Arauak tratamendu fiskal pizgarria ezarten dau inbertitzaile txikiei zuzendutako tresna barrirako, Epe Luzeko Aurrezpeneko Plana izenekorako, hain zuzen be. Salbuetsita egongo dira aurrezpen hori gauzatuko dan depositoko kontuek edo bizitza aseguruiek sortutako errentak, beti be, gitxienez 5 urteko epean urtero 5.000 euro baino gitxiagoko ekarpenak egiten badira.

Gainera, Errentaren gaineko Zergan, pertsona zordunak konkurtso prozeduretan jaso dituan errenten salbuespena ezarten da, zor horreek ez badira jarduera ekonomikoak gauzatzetik sortu.

Soziedadeen gaineko Zergari jagokonez, Iruarrizagak iruzur fiskalaren kontrako burrukea bultzatzen daben neurriak “indartu egingo dirala” azpimarratu dau, ez barruko mailan bakarrik, baita nazinoarteko fiskaltasunaren arloan be.

Hamar artikuluetako batean, Foru Arauak Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributuen Arautegi Orokorra be aldatzen dau. Ataletako batean, arauaren bidez araupetuko diran paradisu fiskalen zerrendea sartzea aurreikusten da, eta beren beregi aurreikusten da zerrenda hori eguneratzea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EH BILDUREN ZUZENKETA ESKE BAT ONARTU DA

Testua, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen hainbat zuzenketagaz heldu da osokora. Zuzenketa horreek batzordean adostu ziran, eta gehienek izaera teknikoa dabe. Gaur osokoak beste aldaketa bat onartu dau, EH Bilduren zuzenketa-eske bat onartu da eta, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Instrukzinoa onesten ebazan apirilaren 30eko 1/1991 Arauzko Foru Dekretua aldatzen eban Arauaren 5. artikulua kentzeko.

EH Bilduko Arantza Urkaregik azaldu dauenez, kentze horrek, Atxondoko Udalak aurkeztutako alegazio baten pausuk jarraitzen ditu. Koalizino abertzaleak uste dauenez, Udalei ez jake “ezer” jakinarazo “aurretik”, zerga horrek udal mailako izaerea dauen arren. “Beharrezkoa izango da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren inguruko gogoeta orokorra egitea udalakaz batera”, adierazo dau.

BEHAR EGITEA MEHATXATUTAKO PERTSONAK ITZULI DAITEZAN

Osoko Bilkuran Bizkaiko Talde Popularraren mozino bat eztabaidau da. Bertan, ETAREN Terrorismoarengaitik Bizkaitik alde egin behar izan eben enpresarioen itzulera erraztera zuzendutako “neurri plan bat” egiteko aukerea “aztertu daiala eskatu jako Foru Aldundiari”.

Azkenean, proposamena aurkeztu dauen taldeak, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztu daben eta Talde Mistoaren aldeko eretxia eta EH Bilduren eta Podemos Bizkaiaren abstentzinoa jaso dauen ordezkari zuzenketa-eskea onartu dau, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzagaz koordinata, beharrean jarraitu daian “bere egunean, mehatxatuta egotearren Bizkaia itzi behar izan eben pertsonak gure lurraldera itzultzer lagunduko daben” neurri egokiak eta bideragarriak identifikatuz.

Zuzenketa-eskea aurkeztu daben talde biek adierazo dabenez, terrorismoaren biktimen autortzarako eta erreparazinarako neurriek Euskadi osoa hartzen dauen jarduketa eremua jasoten dabe, eta ez Bizkaiko Lurralde Historikoa bakarrik. Hori dala eta, azkenean onartu dan testuan, “Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak onartu dituan planakaz sintonian behar egin daiala” eskatzen jako Bizkaiko Foru Aldundiari, “terrorismoaren biktimen autortzari eta erreparazinoari jagokonez eta, zehatzago esanez, biktima horreen itzulerari jagokonez, halan gura badabe”.

Javier Ruiz PP taldeko bozeroaleak azaldu dauenez bere mozinoaren aurkezpena, Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiak Abellanedan egin zan kontroleko azkenengo osokoa izan eban esku-hartzean justifiketan da. Bertan, Rementeriak, urte luzez Bizkaia itzi behar izan eben enpresarioak gure Lurralde Historikora itzultzeko eta bertan finkatzeko aukerea izatea gura ebala esan eban. Ruizek Rementeria berbetatik ulertu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ebana, “eurak gura barik eta derrigortuta, terrorismoaren presinoa dala eta Bizkaia itzi behar izan eben enpresarioei” zuzendutako erbak zirala izan zan.

Podemos Bizkaia taldeak, bere aldetik, osotasuneko zuzenketa-eskea aurkeztu dau PPrean mozinoaren aurrean. Zuzenketa-eske horrek, biktimen erreparazino ekintzea Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritzara eta idazkaritza horrek aurrera daroazan planetara bideratzea proponiduten dau. Holan, Asun Merinero batzarkideak esan dauenez, “erreparazinarako neurri guztiek ikuspegi orokorra izan behar dabe, indarkeriaren ondorioak jasan dituen pertsona guztiek erreparazino integrala izatearena, hain zuzen be, alderdi guztietatik”.

Bere esku-hartzean, Carlos Totorika PSE-EE taldeko bozeroalea pozik agertu da PPK onartu egin dauelako sozialistek eta jeltzaleek aurkeztu daben ordezkot zuzenketa-eskea, “biktimen autortzarako eta erreparazinarako neurriak, enpresarioak itzultzeari jagokozanak barru dirala, Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak planteautakoakaz bat etorri behar diralako”. Bere esanetan, oso pauso garrantzitsua da “Batzar honeetan inork ez dauela defendiduten beste batzuk jazarateko zilegitasuna, edo bakotxak uste dauena adierazotea edo Euskadin bizitzea debeketea”. Horren ostean, “iraganaren irakurketea egiten dogunean txarto egon zana autortzea jagokula” esan dau, “hori dalako bizikidetzeta ezarteko izango dogun oinarria”.

EAJ-PNV taldetik, Jon Sánchezen ustez behar egiteko ildoak “erreparazinoan, oroimenean, bizikidetzan eta autortzan” oinarrituta landu behar dira. Terrorismoaren eraginez Euskadi itzi behar izan ebenak bertara itzultzea bultzatzeko, Sánchezen eretxiz beharrezkoa da “lan integrala egitea, koherentziagaz eta gizarteko eragileen eta mobimenduen eta biktimen artean koordinata”. Baldintza horreetan eta erakunde bakotxari jagokozan eskumenean testuinguruetan “mobidu behar gara”, EAJ-PNV taldeko batzarkideak adierazo dauenez.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak, bere aldetik, ETAREN mehatxua dala eta iges egin behar ebenen itzulerea “Bizkaiko, Euskadiko eta Espainiako gizarteak aspalditik konpondu barik dauen gaia” dala esan dau, “ETAk eragindako krimenak zirala eta pertsona askok erbestera joateko eta euren familiagaz iges egiteko beharra izan eben garaitik”, hain zuzen be.

Zigor Isuskiza EH Bildu taldeko batzarkideak, bere aldetik, popularraren proposamenaren inguruan dituan “zalantza ugariak” adierazo ditu, eta kritikau egin dau PPK “alde batera itzi dauela gizartearen parte garrantzitsua, existiduko ez balitz moduan, bestelako ezelango indarkeriarik egon izan ez balitz moduan”. “Asko gara gatazka honen ondorioak modu batera edo bestera jasan doguzan pertsonak. Badakigu enpresario kopuru jakin batek gogorkeria jasan ebala, ez dogu ukatzen gure herrialdean indarkeria moeta hori gertatu zanik, baina ez da bakarria izan, eta PP taldeak beste indarkeria horreetako asko ezkutau gura ditu behin eta barrero, diktadura garaian iges egin behar izan eben milaka euskaldunek jasandakoa, adibidez”, adierazo dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

ITSAS GIZONENTZAKO GIZARTE INSTITUTUAREN LOKALAK

Beste alde batetik, osokoak aho batez onartu dau EAJ-PNV, PSE-EE eta EH Bildu taldeek batera aurkeztu daberen arauz besteko proposamena, Aldundiak GUFÉ-IFASen menpe dagozan Bermeoko, Elantxobeko eta Ondarroako Itsas Gizonentzako Gizarte Institutuaren lokalen egoera eta erabilera “identifikatu eta aztertu” daizan, bertan emoten diran erabilereagaz eta zerbitzuakaz konpromisoa erakutsiz, bere garaian Gobernu zentraletik egindako eskualdaketeagaz “bat etorrita”.

Akordio horretan, lokal horreetako erabiltzaileakaz beharrez jarraitzeko eskaria egiten jako Aldundiari, euren proposamenak eta ekarpenak kontuan hartuz, halan bada, alkarren artean adostu daikezan hobekuntzak ezarri ahal izateko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
20/07/2016

Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban modificaciones normativas en cinco impuestos del sistema tributario del territorio

Las Juntas Generales de Bizkaia han celebrado hoy en la Casa de Juntas de Gernika, por primera vez en su etapa democrática, un pleno ordinario en julio, circunstancia posibilitada por la aplicación del nuevo reglamento que permite sesiones parlamentarias durante este mes estival. Entre los ocho asuntos tratados, ha destacado la aprobación de una Norma Foral traída por la Diputación foral para modificar diversos aspectos de cinco impuestos del sistema tributario de Bizkaia: IRPF, Impuesto sobre Sociedades, Impuesto sobre Actividades Económicas, Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, e Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana. El pleno ha rechazado un total de 14 enmiendas (6 de EH Bildu y 8 de Podemos Bizkaia).

Según el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, las novedades “más destacables” llegan en su mayoría en el IRPF. En las prestaciones familiares se declaran exentas las reguladas en el Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social vinculadas al cuidado de menores afectados por cáncer u otra enfermedad grave. Asimismo, se incluyen dos nuevos supuestos de exención para las becas concedidas por fundaciones bancarias, tanto para cursar estudios reglados como para trabajos de investigación, asunto éste que ha suscitado el rechazo de Podemos Bizkaia y EH Bildu que no estaban de acuerdo en que estas becas "privadas" tuvieran el mismo tratamiento que las públicas.

La Norma aprobada con el apoyo de PNV, PSE-EE, PP y grupo Mixto, establece un tratamiento fiscal incentivador para un nuevo instrumento dirigido a pequeños inversores denominado Plan de Ahorro a Largo Plazo. Se declaran exentas las rentas generadas por la cuenta de depósito o el seguro de vida a través del cual se instrumente dicho ahorro, siempre que se aporten cantidades inferiores a 5.000 euros anuales durante un plazo, al menos, de 5 años.

Asimismo, en el Impuesto de la Renta se establece la exención de las rentas obtenidas por la persona deudora en procedimientos concursales, siempre que las deudas no deriven del ejercicio de actividades económicas.

En relación con el Impuesto sobre Sociedades, Iruarrizaga ha destacado el "refuerzo" de medidas que favorecen la lucha contra el fraude fiscal, no solo a nivel interno sino en el ámbito de la fiscalidad internacional.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En uno de sus diez artículos, la Norma Foral modifica también la normativa General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia. En uno de sus apartados se prevé la inclusión de una lista de paraísos fiscales que se regulará reglamentariamente y se prevé de manera expresa la posibilidad de su actualización.

ACEPTADA UNA ENMIENDA DE EH BILDU

El texto llegaba al pleno con una serie de correcciones de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, acordadas en comisión, de carácter técnico la mayoría. Hoy, el pleno ha aprobado un nuevo cambio al aprobarse una enmienda de EH Bildu para suprimir el artículo 5 de la Norma en donde se modificaba el Decreto Foral Normativo 1/1991, de 30 de abril, por el que se aprobaban las Tarifas y la Instrucción del Impuesto sobre Actividades Económicas.

Como ha explicado Arantza Urkaregi, de EH Bildu, esta eliminación sigue los pasos de una alegación presentada por el Ayuntamiento de Atxondo. La coalición abertzale cree que no se ha comunicado “nada” a los ayuntamientos “previamente”, cuando este impuesto es de carácter municipal. “Será necesario, junto con los ayuntamientos, llevar a cabo una reflexión general en torno al Impuesto de Actividades Económicas”, ha señalado.

TRABAJAR PARA EL RETORNO DE PERSONAS AMENAZADAS

En el pleno se ha debatido una moción del grupo Popular Vizcaíno en la que se solicitaba inicialmente que la Diputación foral “estudiase” la elaboración de “un plan de medidas” dirigido a facilitar el regreso de los empresarios que han tenido que abandonar Bizkaia por el terrorismo de ETA.

Finalmente, el grupo proponente ha aceptado una enmienda de sustitución de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, apoyada también por el grupo Mixto, y que ha contado con la abstención de EH Bildu y Podemos Bizkaia, para que la Diputación, en coordinación con el Gobierno Vasco, siga trabajando e identificando las medidas oportunas y viables que “coadyuven al regreso a nuestro territorio de aquellas personas que en su día tuvieron que abandonar Bizkaia por estar amenazados y amenazadas”.

Las medidas de reconocimiento y reparación de las víctimas del terrorismo suponen, según los dos grupos proponentes de la enmienda, un ámbito de actuación que salpica al conjunto de Euskadi no solo al Territorio Histórico de Bizkaia. Por ello, en el texto final se pide al Ejecutivo vizcaíno “trabajar en sintonía con los diversos planes aprobados por el Parlamento Vasco y el Gobierno Vasco, respecto al reconocimiento y reparación de las víctimas del terrorismo, y en concreto al retomo, en su caso si así lo estimasen, de dichas víctimas”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El portavoz del PP, Javier Ruiz, ha explicado que la presentación de su moción se justificaba en la intervención en el último pleno de control celebrado en Abellaneda del diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, en el que manifestó su voluntad de que los empresarios que habían abandonado Bizkaia a lo largo de los años, pudieran regresar y afincarse de nuevo en el Territorio Histórico. La interpretación que Ruiz hizo de las palabras de Rementeria fue que el llamamiento "se hacía a aquellos empresarios que tuvieron que abandonar Bizkaia por razón de la presión del terrorismo, porque salieron de manera involuntaria y forzada".

Por su parte, Podemos Bizkaia había presentado una enmienda a la totalidad a la moción del PP, enmarcando la acción de reparación a las víctimas en la Secretaría de Paz y Convivencia del Gobierno vasco y en sus diferentes planes. En ese sentido, su juntera Asun Merinero ha defendido que "todas las políticas de reparación deben tener una visión general, la de que todas las personas que han sufrido las consecuencias de la violencia tengan reparación integral, en todos los aspectos".

En su intervención, el portavoz del PSE-EE, Carlos Totorika, ha mostrado su alegría por la asunción por parte del PP de la enmienda de sustitución presentada por socialistas y jeltzales, "en el sentido de que las medidas de reconocimiento y reparación de las víctimas, incluidas las relativas a la vuelta de los empresarios, han de estar en absoluta sintonía con las planteadas en el Parlamento y el Gobierno vasco". Tras destacar que es "un paso importante que nadie en esta Cámara ha defendido la legitimidad de perseguir a otros, de impedir que se expresen o que vivan en Euskadi", ha dicho que "cuando hacemos la lectura del pasado toca reconocer lo que estuvo mal", porque "esa es la base sobre la que podríamos asentar la convivencia".

Desde el PNV, Jon Sánchez ha considerado que las líneas de trabajo deben girar en base a la "reparación, memoria, convivencia y reconocimiento". Para ayudar al retorno de quienes abandonaron Euskadi por el terrorismo, Sánchez ha considerado necesario llevar a cabo un trabajo "de forma integral, con coherencia y coordinado entre los diferentes agentes y movimientos sociales, y las víctimas". Bajo estas premisas y bajo los contextos competenciales que a cada institución corresponde, ha dicho el juntero del PNV, "es donde nos tenemos que mover".

Por su parte, el portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha considerado que el regreso de quienes se fueron por la amenaza de ETA es "un tema que la sociedad vizcaína, vasca y española tiene pendiente hace tiempo, desde el momento en que por lo crímenes cometidos por ETA muchas personas se han visto obligadas a exiliarse y marcharse con su familia durante muchos años".

Por su parte, el juntero de EH Bildu Zigor Isuskiza ha expresado sus "numerosas dudas" sobre la propuesta de los populares y ha acusado al PP de "dejar de lado a una importante parte de la sociedad, como si no existiera, como si no hubieran existido otras violencias". "Muchas personas hemos sufrido de distintas maneras las consecuencias del conflicto. Sabemos que un número indeterminado de empresarios sufrió la extorsión, no



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

negamos que en nuestro país se dio ese tipo de violencia, pero no es la única, y el PP quiere esconder muchas de ellas una y otra vez, como, por ejemplo, la de los miles de ciudadanos vascos que tuvieron que huir en la dictadura", ha apuntado.

LOCALES DEL INSTITUTO SOCIAL DE LA MARINA

Por otro lado, el pleno ha aprobado por unanimidad una proposición no de norma presentada de forma conjunta por PNV, PSE-EE y EH Bildu para instar a la Diputación a que "identifique y analice" la situación y el uso de los locales, dependientes del IFAS, del Instituto Social de la Marina de Bermeo, Elantxobe y Ondarroa, para seguir comprometida con los usos y servicios que se prestan "en coherencia" con el acuerdo de transferencia que en su día se realizó desde el Gobierno central.

En el acuerdo, se pide a la Diputación que continúe trabajando con los usuarios de estas dependencias, tomando en consideración sus propuestas y aportaciones, para implantar, en su caso, las mejoras que conjuntamente puedan acordarse.